




#### 4. ATALA: IRABAZI ITURRIAK

Gure enpresak diru-sarrera gehienak aplikazioan egiten diren erosketetatik lortuko ditu, bezero batek egiten duen erosketak bakoitzeko %10 **gehituko** diogu, hori gure webgunean eskaintzen diren produktuen kalitateak eta erosleei eskaintzen dien erosotasunak justifikatzen dute.

Alde batetik, produktu erabat ekologikoak eta prozesatu gabeak dira, barazketik zuzenean datozenak eta supermerkatuetan nekez aurki daitezkeenak. Bestalde, erosketak eroso egin daiteke etxetik mugitu beharrik gabe, eta **ordainketa modu desberdinetan** egin daiteke. Arrazoi hauek gure zerbitzuaren prezioa altuagoa izatea ahalbidetzen dute.

Gaur egun jende gehienak kreditu-txartelarekin ordaintzea nahiago dute. Gure aplikazioan aukera hau izango dugu, beste batzuen artean. Eskaintzen ditugun aukerak hurrengoak dira: produktua jasotzean erostea, Paypal bidez, Bizum, Apple Pay eta Kreditu- edo Debitu-txartelak.

Gure diru-sarrera iturriak ehuneko gehiketa bat eginez sortzen dira, hau da, nahiz eta nekazariak produktu bat eskaini prezio batean, guk %10 bat gehitzen diogu garraiorako eta guk etekin bat ateratzeko, kilometroak (bezeroenganaino daudenak) gero eta handiagoak izanez gero, portzentai hau handituko da. Kasu gehienetan seguruenik lehiakideen prezioak merkeagoak izango dira, baina hau **nekazarien prezioen arabera** izango da gehien bat. Baita ere gure aplikazioan beste batzuen publizitatea jartzean ere diru-sarrerak izango ditugu.



Herri bakoitzari ezarritako prezioa gure hornitzaileak egin beharreko distantziaren araberakoa izango da. Pertsona bakoitzak erositako produktuen kopuruaren araberako prezio finkoa duenez, bidalketa-gastuak. **Bidalketa-gastuak** zenbateko dirua gastatu dutenaren araberakoa izango dira, gero eta diru gehiago ordaindu, bidalketa-gastuak txikiagoak izango dira, beti ere kokapena kontuan hartuz. Gero eta hurrunago egon, gastua handiagoa izango da. Baina honek duen alde ona da **150€-tik gorako eskaeretan bidalketa dohainik** izango dela.

Kontuan izan behar da, halaber, lau produktu edo gehiago erosteko orduan, laugarren produktutik aurrera **%20ko deskontua** eskainiko zaiola bezeroari erosketak berean aukeratzen dituen hurrengo produktuetan. Hau da, bost produktu erosten badituzu, bosgarren produktuak beherapena jasoko du.

Hala ere, lehenengo hilabeteetan ez dugu espero diru-sarrerarik izatea, beraz, beharrezko izango da **aurrezkiak** izatea.

Durungaldeko bezeroen hileko kalkulua 16.800 pertsonakoa da. Kopuru horri bost euroko prezioa gehitu behar zaio janari pakete bakoitzeko, eta gasolinaren gaineko zerga eta deskontu posibleak batu gabe, erosketak naturalen hilabete batean enpresak 84000 euro garbi inguru ordainduko ditu.